

6.000 euroko saria Basaurin Kiroljokoan egindako euro 1-eko apustuagatik

Kiroljokoan apustu egiten duten askok egunero eramaten dute balio gehiago edo gutxiagoko saria euren apustu irabazleengatik. Aurreko asteburuan 6.000 euroko saria eman zen euro 1eko apustuarengatik. Saridunak hilaren 19an, ostirala, egin zuen apustua Basauriko Goikoa tabernan eta Saski-Jokoa porran pilatua zegoen botea eramatea lortu zuen. Bere lorpena: Kiroljokoak proposatutako ACBko lau partiduetako irabazleek lortu zuten puntu diferentzia asmatzen bakarria izatea.


Sari honek orain arte Kiroljokoak eman duen sari handiena berdintzen du, hain zuzen ere aurreko urteko martxoan eman zena. Orduan ere apustuzale batek 6.000 euro eramán zituen euro bakar bateko apustua egiteagatik, kasu honetan Golx4 porran futboleko lau partiduetako emaitza zehatza asmatzeagatik.

Futboleko, saskibaloiko edo motorreko porrek, besteak beste, onespén handia dute Kiroljokoako apustularien artean, izan ere pilatutako bote interesgarriak lortzeko aukerak baitituzte euro bat edo bi bezalako kantitate txikiak apustu egiteagatik.

Kiroljokoari buruz

Kiroljokoa apustu katalogorik zabalena eskaintzen duen marka da, kirol, lehiaketa eta apustu modalitate ugari aurkeztuz, non zuzeneko apustuak nabarmentzen diren.

Kiroljokoak gaur egun 15 apustu lokal ditu Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan: 8 Apustu-etxe edo berezko lokal (Eibar, Irun eta Tolosa Gipuzkoan; Durango, Gernika, Santurtzi eta





Barakaldo Bizkaian; eta Gasteiz) eta 7 Kobratze Gune joko aretoetan (1 Donostian, 4 Bilbon eta 2 Gasteizen). Honez gain, Kiroljokoak 500 apustu makina ditu hiru probintzietako tabernetan banatuta.

Informazio gehiago:

Maribel San José
msanjose@kiroljokoa.com
TEL: 688 881 709